

Urkiola - Atxarte



KOKAPENA

Urkiola Parke Naturalak 5.768 hektareako azalera dauka eta AramotzEskubaratz (Eskuagatx) mendizerrak, Durango aldeko mendiek eta Aragio mendizerrak osatzen dute. Parkea Araba eta Bizkaiko herrialdeen artean dago eta bere baitan Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza, Mañaria eta Aramaio daude. Urkiola 1989ko abenduaren 29an deklaratu zen Parke Naturaltzat baliabide naturalak babestu eta kontserbatzea ziurtatzeko asmoz, mendi horietako ustiapen tradizionalak mantenduta eta era berean bultzatuta.

Euskal herriko gunerik inportanteena da garrantzia historikoari dagokionez. Bere ingurunean aldaketa paisajistikorik handienetarikoa garatu bait da egurraren eta arroka merkatuagatik. Ikazkinen eremua izan da duela oso gutxirarte eta itsas nabigazioaren esperimendu gunea ere izan da. Mitologiaren karga alde batera ezin utziz anbotoko Mariz hitz egitea ia beharrezkoa genuke. Mendi hau izan da jaun eta jabe mitoen inguruan, bertan jorratu bait dira leienda ia denak. Mariren etxea dugu hain zuzen ere.

DESKRIBAPENA

Jaurdunaldia erosoak diren bideetatik igaroko da pixkanaka berotan sartzeko; bide hauek, pista eta bide zati batzuekin tartekatuko ditugu.

Guztira, hamar bat kilometro egingo ditugu eta berrehun metro desnibel ere. Zailtasun baxuko irteera izango da.

Urkiolako ikuspegiez gozatzeko aukera iango dugu, baita, inguruan ditugun mendien izenak ikasteko aukera ere.

IBILBIDEA

KM 0 Urkiolako portuan hasiko dugu gure ibilbidea, Santutegia albo batera utzita Urkiolamendira doan pista hartuko dugu.

KM 3 Urkiolamendiko gailurrean gaudela Larranopunteararen beheko partera eramango gaituen bidea hartuko dugu, Alluitz – Anboto aristaren zatia dena.

KM 6 Puntu honetan pista alde batera usten dugu Genzelaira eramango gaituen bidea hartzeko, atzean geratuko zaigu Artola, Alluitz eta Astxiki kollatura doan bidea.

KM 7 Kristo Atxarteko ingurura helduko gara, bertan kantera zaharrak eta eskalatzaileoi liluratzten gaituzten hormak topatuko ditugu. Bertan Untxillaitx mendiari buelta ematen dion pista bat hartuko dugu Mendiolako bidean.

KM 10 Olondoko Bar jatetxera helduko gara non bertako parking-ean autobusa izango dugu zain.

MIDE FITXA

desnibel positiboa 200 m

zailtasuna 1-10 5

desnivel negatiboa 350 m

distantzia 10 km

ordutegia 3 h/ordu

Beharrezko esfortzua
1-10 5

